

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4640

EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 20koa, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskadiko Saskibaloï Federazioaren Estatutuen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituen.

Euskadiko Saskibaloï Federazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1986ko apirilaren 17an, 78 zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketak aurkeztu dira orain.

Euskadiko Saskibaloï Federazioak 2018ko maiatzaren 9an egindako Ezohiko Batzar Oroko-rran, bere Estatutuen 3. artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketak bat datoz urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Saskibaloï Federazioaren Estatutuen 3. artikulua aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea:

3. artikulua:

«Euskadiko Saskibaloï Federazioaren helbidea: Federico Moyua Plaza 6, 1. ezkerrean, 48.009 Bilbao, Bizkaia.»

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea ez du amaitzen eta, haren aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 20a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.